



*Guraso agurgarriak,*

*Ikusten duzuen bezala, ikasturte hasi bezain pronto hasi gara berriro ere gure istorioetan murgiltzen. Oporren ostean, gure laguntxoek denboraren makina puntu-puntu jarri eta dagoeneko lehen bidaia egin dute. Ba al dakizue nora joan diren? Ez? Bada, Erdi Arora!*

*Beraz, hil honetan Erdi Aroaren inguruan gauzak ikusten eta ikasten ibiltzeko asmoa dugu, eta horretarako etxean gai honi buruz dituzuen liburuak, aldizkariak, posterrak, panpinak, etab. zuen seme-alabei ikastolara ekartzen uzteko eskatzen dizuegu.*

*Dakizuen bezala, gaia bukatu bezain laster berriro etxera eraman ahal izateko, oso garrantzitsua da gauza guztietan izena eta deitura jartzea.*

*Besterik gabe, zuen laguntzarekin txoko zuria materialez ondo hornituta edukiko dugulakoan, eta, oraingoan ere, zuen seme-alabekin batera Erdi Aroari buruzko gauza asko ikasiko duzelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.*

*Urdintxo eta Pox.*